

**KULTURA SAILA****Zk-2255**

AGINDUA, 2000ko apirilaren 18koa, Kultura sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta nortasun juridiko propioen entitateei beren liburutegiko liburu-multzoak berri edo/eta handitzeko dirulaguntzak emateko modua arautu eta horretarako deia egiten duena.

Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen bidez Euskadiko Liburutegi Sare Nazionala sortu zen eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean kokatu zen (EAeko Administrazioaren Sailak sortu, kendu eta aldatzeko urtarilaren 4ko 1/1999 Dekretua). Kultura Sailari dagokio liburutegietarako eta Euskadiko ondare bibliografikorako politika eratzea eta Sarearen barruan sartuta dauden liburutegien jarduerak eta egitarauak koordinatzea.

Araudi horrekin bat etorritik eta, aipatutako Liburutegi Sare Nazionala arautu, antolatu eta era bat martxan jarri bitartean, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen du, udalekin batean, horiek baitira liburutegien jabeak, Sarean sartuta dauden liburutegiei fondo bibliografikoak emateko erantzukizuna, liburutegiek, era horretara, gure Autonomia Erkidegoko erabiltzaileen beharrezko modu egokian erantzun ahal izateko.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak, Kultura Saileko Liburu eta Liburutegi Zerbitzuaren bitartez, Bibliografia Hautatuaren zerrenda osatuko du, liburutegietatik adierazgarrienak jasoaz, fondoaren erosteko- eta sailkatze-lanak errazteko.

Horrenbestez,

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– Xedea

Agindu honek Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta udal bat baino gehiagoz osatuak egonik nortasun juridiko propioa duten entitateei 2000ko ekitaldian dirulaguntzak emateko modua arautu eta horretarako deialdia egiten du, Euskadiko Liburutegien Sare Nazionalan sartuta dauden beren liburutegi publikoetako liburu-multzoa berri edo/eta handitu dezaten.

Dirulaguntza horiek 2000 urtean zehar honako liburu hauek erosteko izango dira:

1.– Liburutegiak sortzeko beharrezkoak diren liburu sortak.

2.– 1999ko Bibliografia Hautatuaren zerrenda osatzen duten liburuak edo erreferentziako liburu garrantzitsuak. Hala ere, azkenean ematen den dirulaguntzaren %40rainoko diru kopurua bestelako obrak eroste-

**DEPARTAMENTO DE CULTURA****Nº-2255**

ORDEN de 18 de abril de 2000, de la Consejera de Cultura, por la que se convocan y regulan subvenciones a los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi y a las entidades con personalidad jurídica, para la dotación y/o renovación de los fondos de su/s biblioteca/s.

Por Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco se crea el Sistema Nacional de Bibliotecas de Euskadi ubicado en el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco (Decreto 1/1999, de 4 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la CAPV), al que corresponde el diseño de una política bibliotecaria y del patrimonio bibliográfico del País Vasco, así como la coordinación de las actividades y programas de las bibliotecas integradas en el Sistema.

De conformidad con dicha normativa, y en tanto se regule, desarrolle y ponga en marcha por completo el citado Sistema Nacional de Bibliotecas, el Gobierno vasco, hace suya, en corresponsabilidad con los Ayuntamientos en calidad de titulares de las mismas, la responsabilidad de dotar de fondos a las bibliotecas integradas en el Sistema, al objeto de que estas puedan atender convenientemente a las necesidades de los usuarios dentro del ámbito de nuestra Comunidad Autónoma.

Igualmente, El Gobierno Vasco a través del Servicio del Libro y Bibliotecas del Departamento de Cultura, proporcionará un listado de Bibliografía Selectiva comprensiva de las obras bibliográficas más representativas, con el objeto de facilitar las labores de adquisición y catalogación de los fondos.

En su virtud,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Objeto.

La presente Orden convoca y establece el régimen de concesión de subvenciones durante el ejercicio 2000 destinadas a Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o a entidades con personalidad jurídica propia que englobe a varios de ellos, para la dotación y/o renovación de fondos de su/s Biblioteca/s Pública/s Municipal/es integradas en el Sistema Nacional de Bibliotecas de Euskadi.

Tales subvenciones, consistirán en cantidades en metálico para la adquisición durante el 2000, de:

1.– lotes fundacionales para bibliotecas de nueva creación.

2.– títulos reseñados en el catálogo de Bibliografía Selectiva de 1999, u obras de referencia. No obstante lo dicho, podrá optarse por la adquisición, hasta un 40 % de la cantidad que resulte finalmente asignada, de

ko ere erabiltzerik izango da, dena dela ere horien euskarria, obra horiek, liburutegietako fondoak osatzeko interesgarriak izan arren, aipatutako kategorietan sartu ez badira.

### 2. artikulua. – Diru kopuruak

Agindu honetan arautzen diren dirulaguntzek, gehenez jota 90.000.000 pezetako / 540.910,89 euroko diru kopurua osatuko dute guztira, Autonomia Erkidegoak 2000rako dituen Aurrekontu Orokorretan horretarako diru-atala ezarri baita.

### 3. artikulua. – Onuradunak

Agindu honetan adierazitako dirulaguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko udalek edo udal bat baino gehiagoz osatutako nortasun juridiko propioaren entitateek jaso ditzakete, dirulaguntzok beren udal liburutegi publikoetara zuzentzekotan, eta ondorengo baldintza hauek betetz gero:

1.– Liburutegiak sortzeko beharrezkoak diren liburu sortak erosteko dirulaguntzetarako:

a) Entitate onuradunak 1999rako edo 2000rako udalaren aurrekontuetan diru-atal bat izatea sorkuntza berriko liburutegia liburuz hornitzeko. Gutxieneko kantitatea hauxe izango da: Agindu honen II. eranskina araberago dagokion kopuruaren erdiaren adinakoa.

b) Dirulaguntza jasoko duten udal liburutegi publikoak Euskadiko Liburutegien Sare Nazionalean sartuak egotea eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako.

c) Liburutegi berria erabiliko duten biztanleen kopurua 3.000koa edo 3.000tik gorakoa izatea.

d) Liburutegi horiek 1999ko urtarrilaren 1a eta Agindu honetan ezarritako eskabideak aurkezteko azken egunaren artean sartuak eta irekiak izatea, Kultura Sailaren eskutik helburu horretarako inolako dirulaguntzarik jaso ez badute behintzat.

2.– Liburutegietako fondoak berritzeko dirulaguntzetarako:

a) Entitate onuradunak 1.500 biztanletik gora izatea.

b) 2000rako udalaren aurrekontuetan diru-atal bat izatea bere liburutegiko fondoak erosteko edo berritzeko.

c) Dirulaguntza jasoko duten liburutegiak Euskadiko Liburutegien Sare Nazionalean sartuak egotea eta aldi-aldi estatistika liburu hilabetekariak bidaltzea.

otras obras, sea cual sea el soporte que las contengan, que siendo susceptibles de integrar el fondo de la/s biblioteca/s, no estén incluidas en las categorías antes mencionadas.

### Artículo 2. – Dotación.

Las subvenciones reguladas en la presente Orden, se otorgarán por una cuantía límite de 90.000.000 PTA / 540.910,89 Euros, con cargo a la dotación presupuestaria que, a este efecto, se ha dispuesto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma para el 2000.

### Artículo 3. – Beneficiarios.

Serán susceptibles de ser considerados beneficiarios de las subvenciones establecidas en la presente orden, los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euzkadi, o las entidades con personalidad jurídica propia que engloben a varios de ellos, que destinen las mismas a su/s Biblioteca/s Pública/s Municipal/es, siempre y cuando se reúnan las siguientes condiciones:

1.– Para la asignación de subvenciones con destino a lotes fundacionales.

a) Que la entidad beneficiaria disponga para el 2000, o que hayan dispuesto en 1999, de una partida de fondos propios en los presupuestos municipales asignada para la Dotación de fondos de la/s biblioteca/s de nueva creación, hasta una cantidad mínima igual a la mitad de la cuantía que según el anexo II de la presente orden le correspondería.

b) Que la/s Biblioteca/s Pública/s Municipal/es a la/s que ha/n de destinar la subvención se encuentre/n, a la finalización de plazo para presentación de solicitudes, integrada/s en el Sistema Nacional de Bibliotecas de Euzkadi.

c) Que la población a la que ha/n de atender la/s nueva/s biblioteca/s sea igual o superior a 3.000 habitantes.

d) Que esta/s haya/n sido creada/s y abierta/s al público durante el periodo comprendido entre el 1 de enero de 1999, y la fecha límite que para la presentación de solicitudes fija la presente orden, siempre y cuando no hubiera/n recibido del Dpto. de Cultura subvención alguna para este concepto.

2.– Para la asignación de subvención para la renovación de fondos en bibliotecas:

a) Que la entidad beneficiaria cuente con una población superior a 1500 habitantes.

b) Que disponga de una cantidad de fondos propios en los presupuestos municipales de 2000, para la adquisición de obras destinadas a la renovación del fondo de su/s biblioteca/s.

c) Que la/s biblioteca/s a la/s que ha/n de destinar la subvención se encuentren integradas en el Sistema Nacional de Bibliotecas de Euzkadi y envíen regularmente los boletines mensuales de estadísticas.

d) Liburutegi horiek eskabideak aurkezteko epean jandik irekiak egotea edo, bestela, urtea bukatu baino lehen irekitzea.

Onuradunei dirulaguntza hauek eman eta, hala badagokio, ordaindu ahal izateko, beharrezkoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorak nahiz bere Erakunde Autonomiadunek antzeko helburuetarako emandako beste laguntza edo dirulaguntzak direla eta izapidatzen ari diren itzulketa edo zigor prozedurak bukatzea, horrelakorik baldin bada.

#### 4. artikulua. – Epea.

Agindu honetan adierazitako dirulaguntzak jasotzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua indarrean jartzen den egunetik hasita.

#### 5. artikulua. – Eskabideak.

Eskabideak Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari zuzenduko zaizkio eta Kultura Sailean aurkeztuko dira, bai zuzenean, bai azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako bideetako edozein erabiliz, eta III. Eranskinen azaltzen den ereduari jarraituz egingo dira (liburutegi berriak zabaltzeko beharrezkoak diren liburu sorten kasuan, IV. Eranskinen ereduari jarraituz).

Eskabidearekin batera honako hauek aurkeztuko dira:

a) Beste edozein erakunde publiko zein pribaturi helburu berberaz eskatutako dirulaguntzen zerrenda, erakundearen izena eta dirulaguntzaren egoera aipatuta (ezetsiak, erantzunaren zain ala emanak eta diru kopuruak). Horrelakorik egon ezean, dirulaguntza jasotzeko aurkeztutako helburuetarako beste inongo laguntzarik ez dela eskatu egiaztatzeko jakinarazpena.

b) Estatistika liburu hilabetekariak aldian-aldian bidaltzen ez badira, bidaltzeko konpromisoa.

eta, gainera, beste hauek:

Liburutegiak sortzeko beharrezkoak diren liburu sorten kasuan:

1.– 1999 edo 2000ko udalaren aurrekontuetan helburu berbererako onartuak izan dituen edo dituen diru-atal propioen egiaztagiria, edo bere finantzazioan parte hartzeko konpromisoa. Horren kopurua izango da, gutxienez, Agindu honen II. Eranskinaren arabera dagoen kopuruaren erdia.

2.– ELSNean sartzeko eskabidea, aurretik egin ez bada, eta proiektuari buruzko txosten zehatza.

Fondoak berritzeko eskabideen kasuan:

1.– 2000ko udal aurrekontuetan Liburutegiko liburu-multzoa berritzeko onartuak dituen diru-atal propioen egiaztagiria, edo bere finantzazioan parte hartzeko konpromisoa. Bigarren aukeraz baliatuz gero, zehaz-

d) Que la/s citada/s biblioteca/s este/n abierta/s al público, a la fecha de presentación de la solicitud, o que lo vayan a estar antes de la finalización del año.

Para este supuesto, la concesión, así como en su caso, el pago de las subvenciones y ayudas a los beneficiarios de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en transición.

#### Artículo 4. – Plazo.

El plazo de presentación de solicitudes para acogerse a las subvenciones establecidas en la presente Orden será de un mes, a contar desde el día que surta efectos la presente Orden.

#### Artículo 5. – Solicitudes.

Las solicitudes, según modelo del Anexo III, y en el caso de los lotes fundacionales según modelo del Anexo IV, se dirigirán al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes y se presentarán en el Departamento de Cultura, bien directamente, bien por cualesquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

A dicha solicitud se acompañará:

a) Una relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas para el mismo objeto, Entidades Públicas o Privadas a las que se hayan solicitado, así como estado de las mismas, (denegadas, pendientes de resolución, concedidas e importes). Caso contrario, documento declarativo de no haber solicitado otras ayudas para el referido objeto.

b) En los casos en lo que no se remitan regularmente los boletines mensuales de estadística, compromiso de envío.

y además,

En el caso de los lotes fundacionales:

1.– Certificado de cantidad de fondos propios destinada en los presupuestos municipales del 1999 o 2000 para igual objeto, o bien compromiso de participación en su financiación hasta una cantidad mínima igual a la mitad de la cuantía que según el anexo II de la presente orden le correspondiera.

2.– Cuando previamente no se haya presentado, solicitud de ingreso en el SNBE y memoria detallada del proyecto.

En caso de solicitudes para la renovación de fondos:

1.– Certificado de cantidad de fondos propios destinada en los presupuestos municipales del 2000 para la renovación de fondos de su/s biblioteca/s o bien compromiso de participación en su financiación. En el ca-

tu egin beharko da ea entitateak, gutxienez, Kultura Sailaren eskutik jasotzen duen adinako kopurua jarriko duen edo, bestela, aipatutako helbururako ematera prest dagoen gehienezko kopurua zein den.

2.- Liburutegia eskabidea aurkezteko epean irekia ez badago, Alkateak izenpetutako konpromisoa, urtea bukatu baino lehen irekiko dela adierazteko.

**6. artikulua.**- Laguntzak kudeatzeko eskumenak dituen organoa.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzari dagokio Agindu honen bidez araututako dirulaguntza programa kudeatzeko egin beharrekoak egitea.

**7. artikulua.**- Eskabidean akatsik izanez gero nola zuzendu.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, aurkeztutako eskabidea osatu gabea dela edo akatsak dituela ikusiz gero, interesatuari emango dio horren berri, eta hark eskabidea osatzeko edo akatsak zuzentzeko 10 egun baliaduneko epea izango du, jakinarazpena jasoz geroztik. Epe hori igarota zuzenketarik egiten ez bada, eskabidea besterik gabe gorde egingo da eta dokumentazioa igorleari itzuliko zaio.

**8. artikulua.**- Laguntzen zenbatekoa, diru-mugak, eskabideei buruzko balorazio irizpideak eta bestelako dirulaguntza edo laguntzekiko bateragarriak ote diren.

1. Liburu-multzoak betetzeari dagozkion dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko, udal-liburutegi bakoitzaren beharrianak hartuko dira kontuan, I. eranskinean azaltzen diren koefiziente eta formulen arabera udalaren biztanle-ratioa irizpide gisa erabiliz. Liburutegi berrietarako liburu sortak erosteko dirulaguntzen zenbatekoa ezartzerakoan Agindu honen II. eranskinean oharmandakoa hartuko da kontuan irizpide bera erabiliz.

2. Dirulaguntza gisa jaso beharreko diru kopurua ezingo da izan, inola ere, onuradunek berek helburu horretarako esleitua daukatena baino altuagoa, liburutegi berrietarako liburu sorten kasuan izan ezik. Kasu horretan dirulaguntzaren zenbatekoa onuradunek helburu horretarako jarritakoaren bikoitzak ere izan daitezke.

3. Onuradun bakoitzak 15 milioi pezetako (90.151,82 euro) diru kopurua jaso ahal izango du, gehienez jota, Agindu honen bitartez.

4. Agindu honen bidez lor daitezkeen dirulaguntzak, onuradunek udal liburutegietarako jasotzen duten beste edozeinekin bateragarriak izango dira, beti ere aurrekontu osoa gainditzen ez bada. Horrelakorik gertatuz gero, diruz lagundutako proiektuaren kostu errearen mugaraino murriztuko da.

5. Kultura Ondarearen Zuzendaritzari dagokio aurkeztutako eskabideak ebaluatu eta aztertzea, Agindu honen 5. artikuluan adierazitako jarraibideen arabera,

so de optar por la segunda opción, deberá especificarse si la entidad se obliga a aportar una cantidad como mínimo igual a la que reciba del Departamento de Cultura, o bien el límite máximo que se este dispuesto a destinar para el fin mencionado.

2.- Cuando la/s bibliotecas no están abiertas a fecha de presentación de la solicitud, compromiso firmado por el Alcalde de apertura antes de la finalización del año.

**Artículo 6.**- Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Patrimonio Cultural la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

**Artículo 7.**- Subsanación de defectos en la solicitud.

Si la Dirección de Patrimonio Cultural advirtiera que la documentación presentada por el solicitante es incompleta o defectuosa, se lo notificará al interesado, concediéndole un plazo de 10 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de recepción de la comunicación, para que subsane la omisión o insuficiencia, transcurrido el cual, sin haber procedido a la subsanación, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución expresa al efecto.

**Artículo 8.**- Cuantía, límites cuantitativos, criterios de valoración de solicitudes, y compatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

1. La fijación de la cuantía de las subvenciones correspondientes a la renovación de fondos bibliográficos, se efectuará atendiéndose al criterio del ratio de población del municipio en que radiquen, de acuerdo a las fórmulas y coeficientes que se describen en el Anexo I. Para la fijación de la cuantía de las subvenciones correspondientes a los lotes fundacionales, se atenderá con igual criterio a lo establecido en el Anexo II.

2. La cantidad a recibir como subvención, no podrá superar nunca a la que los propios beneficiarios tengan asignada para igual fin, salvo en el caso de los lotes fundacionales en los que la cuantía de la subvención podrá llegar a ser el doble de lo aportado por los beneficiarios para igual fin.

3. Se establece la cantidad de 15 millones de pesetas (90.151,82 euros) como cuantía límite de la subvención que un único beneficiario pueda percibir por la presente Orden.

4. Las subvenciones que se concedan serán compatibles con cualesquiera otras que con destino a las Bibliotecas Públicas pudieran percibir sus beneficiarios, sin que pueda existir sobrefinanciación en cuyo caso, la ayuda se reducirá hasta el límite del coste real del proyecto subvencionado.

5. Corresponderá a la Dirección de Patrimonio Cultural el examen y evaluación de las solicitudes presentadas, de conformidad a los parámetros establecidos en

eta horri buruzko Ebazpen Proposamena osatu eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari aurkeztea. Proposamen horretan, hala badagokio, onuradun bakoitzari zuzendutako dirulaguntzaren zenbatekoa eta, egoki iritziz gero, emandako dirulaguntzen helburua modu egokian bete dadin beharrezkotzat hartutako baldintza guztiak ere adieraziko dira.

**9. artikulua.**– Eskabideei buruzko ebazpena hartzea.

1. Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari dagokio, egindako Ebazpen Proposamena ikusita, aurkeztutako eskabideei buruzko Ebazpena hartzea. Horretarako, hiru hilabeteko epea izango du eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasita.

Dena dela, aurreko paragrafoan adierazitakoa adierazi arren, Agindu honen 7. artikuluan ezarritakoa gertatzen denean, ebazteko epea etenda geratuko da izapide horrek duen denboran, jakinarazpena jasotzen den egunaren eta erantzuna emateko epearen arabera.

2. Eskabideren bat aipatutako epe horren barruan ebatzi gabe utziz gero, ezetsizat joko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 43. artikuluan dioenari jarraiki.

3. Interesatu bakoitzari eman beharreko informazioaz gainera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen Ebazpena, bertan laguntza jaso dituztenak eta laguntzen zenbatekoak zehaztuz.

**10. artikulua.**– Dirulaguntza jasotzen dutenen betebeharrak.

Agindu honetan ezarritakoaren arabera araututako dirulaguntzak jasotzen dituztenek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Horrela, dirulaguntza ematen zaiela jakinarazteko gutuna jaso eta hamabost eguneko epean ez badiote dirulaguntzari espreki eta idatziz uko egiten, onartu dutela ulertuko da.

b) Dirulaguntza eman zaien helbururako erabiltzea.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen bidez jasotako dirulaguntzei buruzko informazio guztia ematea, eskatuz gero.

**11. artikulua.**– Dirulaguntzaren ordainketa.

Dirulaguntzen ordainketa bi zatitan egingo da:

el artículo 5 de la presente Orden, así como la elaboración y elevación al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes de la Propuesta de Resolución correspondiente, la cual, en su caso, contendrá la cuantía de subvención por beneficiario, así como, en su caso, cuantas condiciones se estimen necesarias en orden a garantizar el correcto destino de las subvenciones concedidas.

**Artículo 9.**– Resolución de solicitudes.

1. Corresponderá al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista de la Propuesta de Resolución elaborada, la Resolución de las solicitudes presentadas, en el plazo de tres meses, a contar desde la fecha de terminación del plazo de presentación de solicitudes.

No obstante lo previsto en el párrafo anterior, cuando fuera de aplicación lo previsto en el artículo 7 de la presente Orden, el plazo para resolver se suspenderá por el tiempo que aquel trámite requiera, en función de la recepción de la notificación y del plazo para su contestación.

2. La falta de notificación en plazo de la resolución de las solicitudes permitirá entender desestimadas las pretensiones formuladas por el solicitante a los efectos previstos por el artículo 44 de la ley 30/1992, de 26 de noviembre.

3. Sin perjuicio de la notificación a cada interesado, se hará pública, mediante la inserción en el Boletín Oficial del País Vasco, la Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes comprensiva de los beneficiarios y de las cuantías concedidas.

**Artículo 10.**– Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas por la presente Orden, deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención, las entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, la información que sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones con cargo a esta convocatoria.

**Artículo 11.**– Abono de las ayudas.

El abono de las subvenciones concedidas se realizará en dos pagos:

a) Lehenengoan dirulaguntzaren %75a ordainduko da, dirulaguntza ematearen aldeko Ebazpena jakinarazten den egunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean.

b) Bigarreanean dirulaguntzaren %25a, Agindu honen 13. artikuluko 1. puntuan ezarritako dokumentazioa, hau da, onartutako dirulaguntzaren %100 justifikatu eta kitatze aldera aurkeztu beharrekoa, jaso eta egiaztatutako ondoren.

### **12. artikulua.** – Katalogazioaren hornikuntza.

Horretarako ahalmena duen udal sailak, 2000ko urriaren 1a baino lehen, ahal dela, zera bidaliko dio Kultura Sailari: 1999ko Bibliografia Hautatuaren titulu zerrenda eta erreferentziako titulu oinarritzakoa, dagozkion erregistro katalogafikoak egiten hasi ahal izateko.

1999ko Bibliografia Hautatuaren zerrendan agertzen ez diren erreferentziako liburuak, liburutegiak zabaltzeko beharrezkoak diren liburu sortak eta bestelako liburuak erosten direnean, entitate onuraduna arduratuko da horiek katalogatzeaz eta sailkatzeaz.

**13. artikulua.** – Jasotako dirulaguntzaren justifikazioa eta kitapena.

Horretarako ahalmena duen udal sailak 2001ko urtarrilaren 15a baino lehenago honako hauek bidaliko dizkio Kultura Sailari:

a) 1. artikuluan ezarritako kontzeptuei dagozkien gastuen jatorrizko justifikazio agiriak, emandako dirulaguntza osoari dagozkionak.

b) Udaleko aurrekontuen pentzura erositako liburuei dagozkien ordain-agiriak, jatorrizkoak nahiz fotokopia konpultsatuak, emandako dirulaguntzaren erdirainoko kopurukoak, gutxienez, liburutegi berriak zabaltzeko liburu sorten erosketen kasuan, eta emandakoa adinako diru kopurukoak, berriz, fondoak berritzeko erosketen kasuan.

c) Erreferentziako obra, liburutegi berriak irekitzeko liburu sortak eta 1999ko Bibliografia Hautatutik kanpo erositako bestelako liburuen zerrenda, eta horiek katalogatzeko eta sailkatzeko konpromisoa.

d) Beste entitate publiko nahiz pribatu bati helburu berbererako beste laguntzaren bat eskatu baldin bazaio, eta Agindu honek arautzen dituen dirulaguntza eskaerak aurkezteko unean eskaera hori erabaki gabe baldin bazegoen, horren egoeraren berri ematen duen agiria.

2. Egiaztagiria eta gainerako dokumentazioa aztertu ondoren, eskatutako agiriak aurkezten direnetik edo aurkezteko epea bukatzen denetik hasi eta hilabeteko epean, dirulaguntzaren zuriketa egingo da Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen Ebazpen bitartez. Bertan, jasotako dirulaguntza itzuli beharra dagoela adieraziko da edo, hala badagokio, itzuli beharreko diru kopurua zenbatekoa den zehaztuko. Onuradunak diru hori itzultzeko hilabeteko epea izango du gehienez, aipatutako Zuriketa Ebazpena jaso den egunetik hasita.

a) El primero del 75% de la ayuda concedida dentro del plazo máximo de un mes, a partir de la fecha de publicación de la Resolución concedente.

b) El segundo 25% restante previa recepción y verificación de la documentación establecida en el artículo 13 punto 1 de la presente Orden para la justificación y liquidación del 100% de la subvención concedida.

### **Artículo 12.** – Suministro de catalogación

El Departamento Municipal competente remitirá al Departamento de Cultura, preferentemente antes del 1 de octubre del 2000, una relación detallada de los títulos de Bibliografía Selectiva 1999 por los que se ha optado, para proceder al suministro de los registros catalográficos correspondientes.

En los casos de adquisición de obras de referencia, lotes fundacionales y demás títulos elegidos al margen de Bibliografía Selectiva 1999, la entidad beneficiaria deberá hacerse cargo de su catalogación y clasificación.

**Artículo 13.** – Justificación y liquidación de la subvención.

1. El Departamento Municipal competente remitirá al Departamento de Cultura antes de 15 de enero del 2001:

a) Los justificantes originales de gasto relativos a los conceptos previstos en el artículo 1, por el total de la subvención concedida.

b) Originales o fotocopias compulsadas de las facturas correspondientes a las adquisiciones de fondos realizadas con cargo a los presupuestos municipales, hasta un mínimo de la mitad de la cantidad asignada como subvención para los lotes fundacionales, y de una cantidad igual a la asignada para la renovación de fondos.

c) Listado de obras de referencia, lotes fundacionales y demás títulos adquiridos al margen de Bibliografía Selectiva 1999, y compromiso de catalogación y clasificación de las mismas.

d) En los casos en los que ha existido petición de otras ayudas para el mismo objeto a cualquier otra entidad pública y privada, y que estuvieran pendiente de resolución en el momento de la presentación de solicitud de subvención que esta Orden regula, estado de las mismas.

2. A la vista de las justificaciones y demás documentación aportada, dentro del plazo de un mes desde la citada aportación o desde la finalización del plazo para su presentación, se procederá, mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a liquidar la subvención, señalando, en su caso, la devolución de la subvención recibida o su minoración hasta la cantidad que preceda, a cuyo fin otorgará un plazo de un mes, a contar desde la recepción de la referida Resolución.

**14. artikulua.** – Baldintzak ez betetzea.

1. Betebeharrekoak bete gabe geratu direla ulertuko da ondorengo kasuetan:

a) Jasotako dirulaguntza, osorik zein zatiren bat, Agindu honetan zehazten diren helburuetarako erabili beharrean beste zerbaitetarako erabiltzen denean.

b) Agindu honen 13. artikuluko 1 a) puntuan ezarritakoaren arabera eskatutako gastuen jatorrizko justifikagiriak aurkezten ez direnean.

c) Dirulaguntzaren zuriketa egin ondoren dirua itzuli behar izanez gero, kitapenari buruzko Ebazpenean jarritako diru kopurua horretarako jarritako epean itzultzen ez denean.

d) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo laguntza ematearen aldeko Ebazpenean araututakoak betetzen ez direnean.

2. Aurreko zenbakian zehaztutako egoeretakoren bat gertatuz gero, baldintzak bete gabetzat joko dira eta, horrenbestez, laguntzarik izan duten udalek, jasotako diru kopuru guztia eta horri dagozkion interes legalak itzuli beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei Buruzko Legearen Testu Bategina onartzen denean, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarrita dagoen prozeduraren arabera.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.** – Agindu honekin administrazio bidea ixten denez, interesatuek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute Kultura sailburuaren aurrean Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

**Bigarrena.** – Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko apirilaren 18a.

Kultura sailburua,  
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

**Artículo 14.** – Supuestos de incumplimiento.

1. Constituyen supuestos de incumplimiento los que, a continuación, se determinan:

a) La aplicación, parcial o total, de la subvención recibida para actividad distinta de la prevista en la presente Orden.

b) La no aportación de los justificantes originales, requeridos de conformidad a lo previsto en el punto 1 a) del artículo 13 de la presente orden.

c) En su caso, la no devolución de la cuantía que se señale en la Resolución de liquidación de la subvención, en el plazo para ello señalado.

d) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente orden o las que, en su caso, se establezcan en la Resolución concedente.

2. La concurrencia de alguna de las circunstancias previstas en el número anterior, constituirá supuesto de incumplimiento y determinará la obligación, por parte de los Ayuntamientos beneficiarios, de reintegrar a la Tesorería General de la Comunidad Autónoma Vasca, las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan, conforme al procedimiento establecido al efecto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

## DISPOSICIONES FINALES

**Primera.** – Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de Reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación.

**Segunda.** – La presente orden surtirá efectos desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de abril de 2000.

La Consejera de Cultura,  
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

## I. ERANSKINA

DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA  
EZARTZEKO FORMULA  
ETA KOEFIZIENTEA

Biztanle kopuruaren arabera egin da banaketa eta horretarako ondorengo eragiketa hauetatik ateratzen den indize bat ezarri da:

Eusko Jaurlearitzak finkatu duen diru kopurua, hots, laurogei milioi pezeta, banatzea da kontua, 1.500 biztanle baino gehiago dituzten herrietako liburutegi publikoak liburuz hornitzeko.

## 1. Herrien sailkapena

Herri guztiak biztanle kopuruaren arabera sailkatu ditugu eta herrien P balore homologatua lortu dugu, sailkapen honen arabera:

Herria	P
1.500tik 3.000ra	3.000
3.000tik 4.000ra	4.000
4.000tik 5.000ra	5.000
5.000tik 10.000ra	10.000
10.000tik 15.000ra	15.000
15.000tik 20.000ra	20.000
20.000tik 25.000ra	25.000
25.000tik 30.000ra	30.000
30.000tik 40.000ra	40.000
40.000tik 50.000ra	50.000
50.000tik 60.000ra	60.000
60.000tik 70.000ra	70.000
70.000tik 80.000ra	80.000
80.000tik 90.000ra	90.000
90.000tik 100.000ra	100.000
100.000tik 125.000ra	125.000
125.000tik 150.000ra	150.000
25.000ka jarraitzen du.	

Adibidez: 3.248 biztanledun udal bat 4.000 dituenarekin parekatuko da, eta 54.949 biztanledun beste bat, 60.000 dituenarekin.

## 2. Koefiziente zuzentzailea ezartzea.

Koefiziente zuzentzailea ezartzen da zenbat eta herri txikiagoa izan are gehiago laguntzeko. Horrela:

Herria	C
1.500tik 3.000ra	1,6
3.000tik 5.000ra	1,4
5.000tik 30.000ra	1,2
30.000tik 100.000ra	1
100.000tik aurrera	0,8

## ANEXO I

FÓRMULA Y COEFICIENTE PARA LA FIJACIÓN  
DE LA CUANTÍA DE LA SUBVENCIÓN PARA  
RENOVACIÓN DE FONDOS

El reparto se ha hecho en razón del número de habitantes para lo cual se ha establecido un índice derivado de las siguientes operaciones:

Se trata de distribuir la cantidad global de ochenta millones de pesetas asignada por el Gobierno Vasco para el suministro de fondos a las bibliotecas públicas de municipios con población superior a 1.500 habitantes.

## 1. Clasificación por población.

Para ello clasificamos todas las poblaciones de acuerdo a su población obteniendo el valor homologado de población P, de acuerdo con la siguientes escala:

Población	P
De 1.500 a 3.000	3.000
De 3.000 a 4.000	4.000
De 4.000 a 5.000	5.000
De 5.000 a 10.000	10.000
De 10.000 a 15.000	15.000
De 15.000 a 20.000	20.000
De 20.000 a 25.000	25.000
De 25.000 a 30.000	30.000
De 30.000 a 40.000	40.000
De 40.000 a 50.000	50.000
De 50.000 a 60.000	60.000
De 60.000 a 70.000	70.000
De 70.000 a 80.000	80.000
De 80.000 a 90.000	90.000
De 90.000 a 100.000	100.000
De 100.000 a 125.000	125.000
De 125.000 a 150.000	150.000
sigue de 25.000 en 25.000	

Ejemplos: un municipio con una población de 3.248 habitantes se equipararía a 4.000, y otro con 54.959 a 60.000.

## 2. Aplicación del coeficiente corrector.

Se aplica un coeficiente corrector con el fin de favorecer a las poblaciones de menor mayor. Así:

Población	C
De 1.500 a 3.000	1,6
De 3.000 a 5.000	1,4
De 5.000 a 30.000	1,2
De 30.000 a 100.000	1
De 100.000 en adelante	0,8

3. Azkenik I indizea lortzen da honako formula honen bidez:

$$I = \frac{1.000.000 \times P \times C}{PC}$$

PC = Herri guztien PxC baloreen batuketara

P = Kalkulatu nahi den herriko indizearen Pren balorea

C = Herriari dagokion koefizientearen balorea

4. Herri bakoitzari dagokion dirulaguntza kalkulatzeko nahikoa da indizea eta esleipenaren balorea biderkatzea. Hau da:

$$S = \frac{\text{Asignación} \times I}{1.000.000}$$

«S», dena delako udalak jasoko duen diru kopurua da pezetatan.

## II. ERANSKINA

### LIBURUTEGI BERRIETARAKO LIBURU SORTAK EROSTEKO DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzaren zenbatekoa, helburu horretarako, biztanleriaren arabera finkatzen da. Horretarako, taldeak egiten dira ezarritako mugen barruan sartzen diren herriekin, eta jaso beharreko diru kopurua esleitzen zaie.

Biztanle kopurua ez dagokio herriaren biztanle kopuruari, baizik eta dirulaguntza jasoko duen liburutegiaren eragin esparruan sar daitezkeen biztanle kopuruari.

BIZTANLEAK	KOPURUA (Pta./Eurotan)
D3.000tik 5.000ra	2.000.000 (12.020,24)
5.000tik 10.000ra	2.250.000 (13.522,77)
10.000tik 15.000ra	2.500.000 (15.025,30)
15.000tik 30.000ra	2.750.000 (16.527,83)
30.000tik 50.000ra	3.000.000 (18.030,36)
50.000tik 100.000ra	3.500.000 (21.035,42)
100.000tik aurrera	4.000.000 (24.040,48)

3. Se obtiene finalmente el índice I mediante la fórmula.

$$I = \frac{1.000.000 \times P \times C}{PC}$$

en la que PC = Suma de los valores P x C de todas las poblaciones

P = Valor de P de la población cuyo índice se quiere calcular

C = Valor del coeficiente correspondiente a la misma población

4. Para calcular la subvención que corresponde a cada población basta multiplicar el índice por el valor de la asignación global. Es decir:

$$S = \frac{\text{Asignación} \times I}{1.000.000}$$

siendo S la cantidad en pesetas que recibiría el municipio correspondiente.

## ANEXO II

### FIJACIÓN DE LA CUANTÍA DE SUBVENCIÓN EN CONCEPTO DE LOTE FUNDACIONAL

La cuantía de la subvención para este concepto, se establece con criterios poblacionales. Para ello, se crean grupos con poblaciones comprendidas entre los límites que se establecen, y se les asigna la cantidad a recibir.

El número de habitantes no hace referencia al total de la población del municipio, sino a los habitantes del mismo que puedan incluirse en el área de influencia de la biblioteca/s para la/s que se solicita la subvención.

POBLACION	CANTIDAD (Ptas./Euros)
De 3.000 a 5.000	2.000.000 (12.020,24)
de 5.000 a 10.000	2.250.000 (13.522,77)
de 10.000 a 15.000	2.500.000 (15.025,30)
de 15.000 a 30.000	2.750.000 (16.527,83)
de 30.000 a 50.000	3.000.000 (18.030,36)
de 50.000 a 100.000	3.500.000 (21.035,42)
más de 100.000	4.000.000 (24.040,48)

## III. ERANSKINA

## UDALENTZAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA, UDAL LIBURUTEGIETAKO FONDOAK BERRITZEKO

Liburutegiaren izena .....  
 Zein erakunderen menpe dagoen .....  
 Helbidea ..... zkia. ....  
 Herria ..... Posta barrutia .....  
 Telefonoa ..... Telexa ..... Faxe .....  
 Fundazio data .....

## Bibliografia-fondoa:

## Izenburu kopurua

\* Liburuak .....  
 \* Egunkariak .....  
 \* Aldizkako beste argitalpenak (aldizkariak, urtekariak, memoriak etab.) .....  
 \* Entzunezko erregistroak (diskak, kasetak, kartutxoak, zilindroak) .....  
 \* Filmak .....  
 \* Bideoak .....  
 \* Mikrofitxak .....  
 \* Mikrofilmak .....  
 \* Beste zenbait material (partiturak, mapak, argazkiak) .....

Bilduma bereziak .....

## Jendearenganako zerbitzua:

\* Librea: .....  
 \* Mugatua: .....

Haur liburutegia: Bai  Ez

\* Egitasmoak .....

Irekita egoten den egunak eta orduak: .....

Herriaren biztanlegoa: .....

## 1999an jasotako laguntzak:

– Eusko Jaurlaritzatik ..... PTA .....  
 – Udaletik ..... PTA .....  
 – Bestelakoetatik: Erakundea: ..... PTA .....  
                                   \*Erakundea: ..... PTA .....

## 2000rako beste erakundeei eskatutako dirulaguntzak:

– Erakundea: ..... PTA: .....  
 – Erakundea: ..... PTA: .....  
 – Erakundea: ..... PTA: .....

....., 2000ko .....ren .....a

ALKATEAREN IZENPEA

LIBURUZAINAREN IZENPEA

IV. ERANSKINA

UDALEN DIRULAGUNTZA ESKAERA, LIBURUTEGI BERRITARAKO LIBURU SORTAK EROSTEKO

Liburutegiaren izena .....  
 Zein erakunderen menpe dagoen .....  
 Helbidea ..... zkia.....  
 Herria ..... Posta barrutia .....  
 Telefonoa ..... Telexa ..... Faxe .....  
 Fundazio data .....

Bibliografia-fondoa: izenburu kopurua  
 \* Liburuak .....  
 \* Egunkariak .....  
 \* Aldizkako beste argitarapenak (aldizkariak, urtekariak, memoriak etab.) .....  
 \* Entzunezko erregistroak (diskak, kasetak, kartutxoak, zilindroak) .....  
 \* Filmak .....  
 \* Bideoak .....  
 \* Mikrofitxak .....  
 \* Mikrofilmak .....  
 \* Beste zenbait material (partiturak, mapak, argazkiak) .....  
 \* Bilduma bereziak .....

Jendearenganako zerbitzua:  
 Librea: .....  
 Mugatua: .....  
 Haur liburutegia: Bai  Ez   
 \* Egitasmoak .....  
 Irekita egoten den egunak eta orduak: .....  
 Herriaren biztanlegoa: .....

1999an jasotako laguntzak:  
 – Udaletik ..... PTA.....  
 – Bestelakoetatik: \*Erakundea: ..... PTA.....  
                                   \*Erakundea: ..... PTA.....

2000rako beste erakundeei eskatutako dirulaguntzak:  
 – Erakundea: ..... PTA:.....  
 – Erakundea: ..... PTA:.....

....., 2000ko.....ren .....a

ALKATEAREN IZENPEA

LIBURUZAINAREN IZENPEA

## ANEXO III

## SOLICITUD DE SUBVENCIÓN A AYUNTAMIENTOS PARA LA RENOVACIÓN DE FONDOS PARA BIBLIOTECAS MUNICIPALES

Nombre de la Biblioteca .....  
 Institución de la que depende .....  
 Dirección ..... n.º .....  
 Municipio ..... Distrito Postal .....  
 Teléfono ..... Telex ..... Fax .....  
 Fecha de fundación .....

Fondos Bibliográficos: n.º de Títulos  
 \* Libros .....  
 \* Diarios .....  
 \* Otras Publicaciones Seriadas (revistas, boletines, anuarios, memorias, etc.) .....  
 \* Registros sonoros (discos, cassettes, cartuchos, cilindros) .....  
 \* Películas .....  
 \* Videos .....  
 \* Microfichas .....  
 \* Microfilms .....  
 \* Otros materiales (partituras, mapas, fotografías) .....  
 \* Colecciones especiales .....

Servicios al público:  
 \* Libre: .....  
 \* Restringido: .....  
 Biblioteca Infantil: Si  No   
 Proyectos .....

Horario días y horas de apertura .....  
 Población de habitantes: .....

Ayudas recibidas en 1999:  
 - De Gobierno Vasco ..... PTA .....  
 - De Ayuntamiento ..... PTA .....  
 - Otros: \* Entidad: ..... PTA .....  
 \*Entidad: ..... PTA .....

Ayudas solicitadas a otras entidades para el 2000:  
 - Entidad: ..... PTA: .....  
 - Entidad: ..... PTA: .....  
 - Entidad: ..... PTA: .....

En , a de del 2000

FIRMA DEL ALCALDE

FIRMA DEL BIBLIOTECARIO

ANEXO IV

SOLICITUD DE SUBVENCIÓN A AYUNTAMIENTOS PARA LA ADQUISICIÓN DE LOTES FUNDACIONALES PARA BIBLIOTECAS DE NUEVA CREACIÓN

Nombre de la Biblioteca .....  
 Institución de la que depende .....  
 Dirección ..... n.º .....  
 Municipio ..... Distrito Postal .....  
 Teléfono ..... Telex ..... Fax .....  
 Fecha de apertura .....

<b>Fondos Bibliográficos:</b>	<b>n.º de Títulos</b>
* Libros	.....
* Diarios	.....
* Otras Publicaciones Seriadadas (revistas, boletines, anuarios, memorias, etc.)	.....
* Registros sonoros (discos, cassettes, cartuchos, cilindros)	.....
* Películas	.....
* Videos	.....
* Microfichas	.....
* Microfilms	.....
* Otros materiales (partituras, mapas, fotografías)	.....
* Colecciones especiales. ....	.....

**Servicios al público:**  
 \* Libre: .....  
 \* Restringido: .....

Biblioteca Infantil: Si  No   
 \* Proyectos .....

Horario días y horas de apertura .....  
 Población de habitantes: .....

**Ayudas recibidas en 1999:**  
 - De Ayuntamiento ..... PTA.....  
 - Otros: \* Entidad: ..... PTA.....  
           \* Entidad: ..... PTA.....

**Ayudas solicitadas a otras entidades para el 2000:**  
 - Entidad: ..... PTA:.....  
 - Entidad: ..... PTA:.....

En \_\_\_\_\_, a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ del 2000

FIRMA DEL ALCALDE

FIRMA DEL BIBLIOTECARIO